

AURKEZPENA

Garai gogor hauetan, artean COVID-19aren oldarraren pean baina horizonte argiago batez, Buletin berri bat dugu aurkeztgai, oraingoan ez abenduan, ekainean baizik.

Aldaketa garrantzitsua da, eta Buletinerako beste aldaketa batzuetan lehen-dabizikoa, geratzeko etorriak. Nabarmentzekoak dira, haien artean, Ebaluazio Batzordea, aurrerantzean Erredakzioan jasotzen diren artikulua ikuskatuko dituen; ediziorako Oinarri eta Arau batzuk ezartzea, Buletin honetan eta hurrengoetan argitaratuak eta argitaratzekoak, pertsona autoreen lanak haiekin bat etor daitezzen; edukia bera, Buletinaren barne-banaketa aldatu egingo baita (aurrerantzean, Azterlanak, Oharrak eta Denetarik); azkenik, haren ekintza-eremua Donostiatik (Buletinaren funts eta jatorria) Gipuzkoako lurralde osora hedatu da. Aurrerantzean, beraz, “Donostiako eta Gipuzkoako Azterlan Historikoen Buletina” deituko da.

Aldaketa horietarako, Buletina bost hilabeteko denbora murriztean moldatu behar izan da. Hilabete horietan, pertsona autoreek zenbait artxibategi eta liburutegi ixtearen trabak gainditu behar izan dituzte, edo kanpoko artxibategiak kontsultatu behar izan dituzte pandemiaren ondorioz perimetralki itxitako lurraldeetan.

Eskuetan duzun 54 zenbakiko Buletina ahalegin horren guztiaren emaitza da. Egiten joan den bezala, argi eta garbi banatutako 2 ataletan sailkatzen da. Lehendabizikoan, Azterlanak, kolaboratzaileek (haietako batzuk gure orrialdeon jarraitzaile zintzoak) ondutako 7 artikulua biltzen ditu, gai sorta zabal eta bariatu, moderno eta, batez ere, garaikidekoak. Bigarren atala, berriz, Oharrak da, eta luzera eta eduki desberdineko bi ekarpen biltzen ditu, bertan agertuz Frantzia etsai naturalaren kontra XVII eta XVIII. mendeetan Gipuzkoan eta Donostian bizi izandako gertaera eta gerra garrantzitsuak.

Azterlanak atalari ekiteko, Carlos Rilova Jericóren “El día de Rocroi... La plaza fuerte de San Sebastián y la frontera guipuzcoana de 1643 a 1697” lan luzea dugu. Autoreak 1643ko maiatzaren 19ko Rocroiko batailaren ondorioak aztertu ditu. Gudu horretan, Enghiengo dukea (gero, Condéko printzea) eta Francisco de Melo kapitain jenerala borrokatu ziren; De Melo Espainiako Flandesko Tertzioen buruzagi zebilen une horretan. Bada, bertan Frantzia atera zen garaile borroka gogor batean, eta luzetara Espainiaren gainbehera eta Frantziaren goraldia ekarri zuen nazioarteko panorama politikoa. Autoreak Espainiako eta Europako historiografian

oinarrirituz heltzen dio azterketari, bereziki erreparatuz idazlan hauexei: Cánovas del Castilloren “Historia de la decadencia de España”, Gregorio Marañónen egindako Olivaresko konde-dukearen biografia, José María Marco ideia politikoen historiako irakaslearen “Una historia patriótica de España” eta John H. Helliot zain Henry Kamen hispanisten obra, Espainiaren gainbehera politikoen hasiera Rocroioko porrotean oinarritzen dutena.

Gertaeraren historia herrikusteko asmoz, autoreak gudu horren aurreko zein ondoko jarduera politikoen inguruan kontserbatu den dokumentazioa aztertu du, hala Iñigo Vélez de Guevara y Tassis Oñatiko konde-jaunarena (1644an hil zen arte) nola Espainiako politikako beste pertsonaia garrantzitsu batzuen. Oñatiko konde hori, hain zuzen, Felipe IV.aren (ezizenez “Planeta Erregea” deitua) Gorteko kargudun gorenetakoa bat zen. Halaber, Simancasko Artxibategi Nagusiko dokumentazioa aztertu du eta, ondorioz, baieztatu ahal izan du Gerra Kontseilua ez zela batere asaldatu bataila horri buruz, gerora hondamendia deitu bazitzaion ere. Are, hondamendi militarren albistearen ondoren, Kontseilua bere eginkizunetan jarraitu zuen ohituraz egiten zuen bezala, “erabateko patxadaz”. Dударik gabe, Luis XIII.aren 1643ko maiatzaren 14ko heriotzaz, Espainian uste izan zuten bazutela “Bake unibertsal” bat sinatzeko aukera, errege haren alarguna, Ana Austriakoa erregina (Felipe IV.aren arreba) hurbilekoa zutela eta, baina Espainian ez zitzairen inoiz iruditu Rocroioko porrot latza jasateagatik bake baten premia zegoenik, Espainiako monarkiak frantzesari men egin behar izateraino.

Gipuzkoarentzat, bereziki garrantzitsua da mugaren azterketarekin jarri duen arreta, tartean direla Donostia eta Hondarribiaren kasuak. Autoreak dokumentuen bidez luze eta zabal azaldu du haietako herritarren normaltasunez bizi zirela, inbasio frantses baten berehalako arriskuz bizi beharko zen aztoramendu orokorrarekin inondik ere bateragarria ez dena. Hori guztia dela eta, autoreak baieztatzen du Espainiarentzako Rocroioko hondamendiaren mitoa “Mazarino kardinalaren soldatapeko kreatura intelektualen sorkari bat besterik ez zela izan, hemeretzigarren mendean zenbait historialarik ontzat eman eta hala ezarrita utzi bazuten ere, adibidez, Antonio Cánovas del Castillok”.

Lan luze horren segidan, M.^a Rosario Roquero Ussiaren bi azterlan datoz. Lehenak “Cuando el Clero de Guipúzcoa se rebeló contra la Provincia (1710-1737)” du izena, eta aztertzen du Gipuzkoako kleroak, Probintziak hartutako erabakiaren aurrean, agintaritza zibilari eta kanonikoari irmotasunez gogor nola egin zion; izan ere, interesatuei kontsultatu gabe ezarri zen San Ignazio Loiolakoaren jaiegunaren, uztailaren 31ren bezperan barau-botoa egitea, eta uste zuten erabakia ez zettorrela bat beren immunitatearekin. Kleroaren arabera, pulpituaren bidez xedapen laikoak argitaratzean edo meza berriak, bataioak, hiletak edo abitu-janzteak murriztean jada (hala erabaki baitzen jada XVII. mendean, baita behin eta berriz bete ez bazen ere) haien immunitatea “erasoan” zegoen.

“Erreboltak” Jose Antonio Aialde eta haren anaia (Lorenzo benefizioduna), eta Josef Otxoa de Arin Villafrancako bikarioa izan zituen buru. 1710ean hasi zen, Calahorra eta Calzadako apezpikuak boto hori elizbarrutiko herrientzat onartu zuenean, eta Iruñeko elizbarrutiko fededunen artean beldurra zabaldu zenean jaun Pedro de Aguado apezpikuak berdina egingo ez ote zuen. Hain zuzen,

horixe egin zuen 1713an. Kleroaren “erreboltaren” aurrean, apezpikuak Gaztelako Kontseiluaren interbentzioa eskatu zuen, eta horrek erreboltariak preso hartu eta haien ondasunak kentzearekin mehatxatu zituen; are, Erregeak erbestera ere egin zituen 1716an eta, geroago, Frantziara kanporatu. Borroka 1737an amaitu zen, aldeek idatziz konkordia hitzartu eta kleroak auzipean zen baraualdia onartu zuenean.

Bestalde, M.^a Rosarioren bigarren idazlan luzeak, “Los peligros en los caminos de Guipúzcoa. Siglos XVIII-XIX” deituak, Gipuzkoako bideetako joan-etorrien aspaldiko problematika aztertzen du: segurtasun-eza. Arazo iraunkorra zen, Erdi Aroko garai ilunetan jada dokumentatua, eta ekonomia eta gizartearen zein politikaren krisi-garaietan areagotu egiten zen. Beraz, krisiaren eta gerrako lazerien ondorioz, gure herrialdeko orografia zailak lagundurik, “bideetara barra-barra heldutako” pertsonak aztertu ditu.

Tartean ziren eskaleak edo behartsuak, bizitzan zorigaitz bat jasan eta, ondorioz, beharrean ziren pobreak edo desgaitasunen bat zutenak, eta auzotarren kariatatea jasotzen zutenak; etxerik edo familiarik ez bazuten, erromes edo eskeko ere deitzen zitzairen. Alferrak, nagiak edo mantenu txarrekoak (1775eko Alferren Ordenantzaz arautuak) “lana maite” ez zutenak ziren, eta “Jainkoak nahi nola” alderrai ibiltzen ziren bideetan, pelegrinekin (erromesekin) nahastuak eta aldizka lanen bat eginez, bide batez etxeetan zein baserrietan. Ez zuten pasaporterik (1784tik aurrera beharrezkoa bideetan ibiltzeko) eta, krisi-garaietan ugaltu egiten zirenez, erabaki zen lurreko ospitale asko ixtea, gehienetan armadan sarrarazi edo gale-retara bidatzen bazituzten ere. Bidelapur edo gaizkileek, aurpegia agerian edo mozorroturik, bakarrik edo taldean, eraso egiten zieten merkatariei eta bidaiariei errepideetan eta mendate-ingurune edo bentetan, eta bereziki arriskutsuak ziren Lizarrateko mendatean (Araba eta Gipuzkoa artean) eta Iturriotzeko bentara bidean (Aian). Talde horretan sartu behar dira bideetan zebiltzan emakumei eraso egiten zieten mandazainak. Kontrabandistak, bereziki tabakoarenak, banaka edo taldean profesionalizaturik jokatzeko zuten, eta emakumeek rol garrantzitsua jokatu zuten haien artean. Armadako desertoreak ugari izan ziren XVIII eta XIX. mendeko gerra ugarietan; oro har, ez zuten kalterik egiten, eta etxera lehenbailehen itzuli besterik ez zuten nahi. Ijitoak edo buhameak, XV. mendetik zebiltzan Espainian, eta bazter-tuta zeuden gizarteetan, neurri handi batean haiek hala nahita, lapurretara eta iruzurrera emanak baitziren.

Azterlanaren azken atalean, autoreak errege- eta foru-legediei erreparatu die, dokumentuetako kasu ugariaren adibideak eta, Konbentzioaren Gerraren ondoren, alferrak eta “lapurren, kontrabandisten eta gaizkileen” talde guztiak pertsegitu eta suntsitzeko Mikeleteen Gorputzaren 1796ko sorreraren berri ekarriz.

Pedro Berriochoa Azcárate historialari eta ohiko kolaboratzaileak, oraingoan, “las fiestas Éuskaras de 1906 en San Sebastián” eskaini digu. Festa “bikainak” izan ziren autorearen arabera, Liga Foral Autonomistaren eta Ekonomia Ituna berritzearekin batera egin baitziren. Festa horiek, 1896an hasiak, urtero egin ziren 1913 arte (1914koak, berriz, ez ziren egin Lehen Mundu Gerra zela eta) Diputazioaren bultzadaz Gipuzkoako askotariko herrietan. Haien bitartez, nekazaritza hobetu nahi zen (nekazaritza eta abeltzaintza-lehiaketan bitartez), euskal kultura aldarrikatu (eta,

horretarako, udalak Donostiako Lore Jokoetan parte hartzea eskatu zen, literaturara, bertsolaritzara eta txistularien txapelketara bideratuak), baita Probintziaren instituzionaltasuna ikusarazi ere, Probintziako Diputazioaren protagonismoaren bitartez, foru-diputazioa lortzeari begira (probintziaren identitate erregional eta nazionala aldeztuz).

1906an, ospakizuna Donostian egitea egokitzen zen, eta udalak diputazioarena baino askoz aurrekontu altuagoa bideratu zuen. Ondorioz, ohiko lau egunetatik astebetera luzatu ziren festak. Ospakizuna 1904an Liga Foral Autonomista sortzearekin batera suertatu zen (identitate nazionala bilatu eta foruak osorik berrezartzearen aldekoa); hain zuzen, Liga hori urte hartako Alkoholen Legeak xedatzen zuen ardoaren zerga berriaren aurka zegoen (1906ko Ekonomia Ituna berritu behar zen unean). Udalak, gehiengo liberal-errepublikarrekoak, Julian Salazar alkateordearen eskuetan utzi zuen festa horren antolakuntza. Salazarrek batzorde bat izendatu zuen, eta sei hilabetez lan egin zuen (uztailaren 8tik 15erako) festetarako, baita arrakasta lortu ere. Hala izan ziren autoreak xehetasunez egin duen azterketaren eta Diputazioak zein Udalak esleitutako sarien arabera, eranskinean bilduak.

Pilar Bosqued Lacambra arte-historialariak eta paisajistak, bere aldetik, donostiarrentzako interes handiko bi azterlan eskaini dizkigu. Lehenak “Ducasse y los hermanos donostiarra de La Peña Ducasse: jardineros, horticultores, viveristas, paisajistas y floristas. Aportaciones al tema” du izenburua, eta Pierre Ducasse lorazain baionesaren jarduera aztertu du, baita Alfredo eta Carlos haren ilobarekin ere mende-aldaketaren garaiko Donostian, Pierre 1866an hirian finkatu zenean, dirudienez Narrosko dukeak Zarautzen zituen lorategien ardura bere gain hartu zuenean. Goiz alargundu zen bere lehen emaztetik (Marie Louise Camy), adin oso gazteko bi alabarekin geratuz (Maria Magdalena eta Matilde); 1878an, Villa María Luisa mintegia sortu zuen Ategorrietan, eta lorezaintzaren berezko zereginetan zein paisajismoan sartu zen buru-belarri, hala nola landareak zein lorezaintzako objektuen salmenta, lore-konposizioak moldatzea, jaialdien lore-apaingarriak egitea eta era guztietako parkeen zein lorategien diseinua, marrazketa, exekuzioa zein mantentze-lana.

1888an, Maria Magdalena Dionisio de la Peñarekin ezkondu zen, Zamorakoa eta Haciendaako funtzionarioa. Haien semeek, Alfredok eta Carlosek, Pierre aitonaren pausoei jarraikiz, Versaillesko École Nationale Horticulturen egin zituzten ikasketak, eta bertakoek zein atzerritarrek estimu handitan izan zuten haien familia-negozioa. 1959an Alfredo hil zenean, Alfredo de la Peña Bengoetxea semea izan zuen oinordeko familia-negozioan. 1971n Carlos hil zenean, negozioa banandu egin zen, Alfredo Uliako mintegiekin geratuz (Ducasse plantas izenez) eta Carlos (Jose Carlos de la Peña Ylzarbe) izen komertzialarekin: Villa María Luisa eta Oiartzungo mintegiak; 1988an hil zenean, berriz, Ramón de la Peña Enrique izan zuen oinordeko 2010ean erretiroa hartu zuen arte. Egun, haren arrebaren eskuetan jarraitzen du Donostiako loradenda.

Pilar Bosqueden bigarren azterlanak “La villa Sagols en el monte Igueldo de San Sebastián” du aztergai. Txalet hori Enrique Sangols Ferrer Zaragozan finkatutako gironatarrak altxa zuen eta, horretarako, 1915ean, harkaitz bat erosi zuen Igeldo Mendiaren magalean Kontxako badiari begira. Autoreak Enrique aztertu du

bertan, nola Zaragozatik pasa zen, bertan 1874an Julia Rodrigo Coutensekin ezkonduz, eta elkarrekin Argentinara joan ziren, eta berriz Zaragozara itzuli, gerentelanean aritzeko, Averly enpresan (fundizio eta eraikuntza mekaniko handiak) eta Sangols y Compañía sozietatean (karro atmosferiko edo komunen bidez, letrinak eta putzu beltzak garbitzera dedikatua). Enrique Aragoiko hiriburuan hil zen 1921ean bere Quinta Julieta zoragarrian (nekazaritza eta aisialdirako lursaila, Aragoiko Kanal Inperialaren aldamenean kokatua); lehenago, Nekazaritzaren Merituko Ordena Zibilaren Zaldun izendatu zuten.

1905an Donostian zegoen, Donostiako Udalari eskatuz Miramar jauregiaren pean kokatutako harkaitz bat hari saltzeko, une horretan “retrete gisa” erabiltzen zena, hiriko aisialdirako kiosko-taberna bat bertan irekitzeko. Hori egin ezin izan zuenez, 1915ean harkaitz bat erosi zuen badiaz bestaldean, txalet bat eraikitzeko; horretarako, beharrezko udal-lizentzia eskatu zuen (baita eskuratu ere). Antonio Miranda Fondevilla Huescako arkitektoak planoak jaso zituen, eta txaleta itsasoari lotu zion elementu hauexen bidez: arroken artean induskatutako eskailera bat, alde banatan zimenduzko barandak zituen bidezidor bat, eta olatuen oldarraren kontrako defentsa-murru bat. Hala ere, Enriquek gutxi disfrutatu zuen txaletarekin, 1921ean hil baitzen Zaragozako bere etxean.

Azkenik, Pedro Gorrotxategi Gorrotxategi eta Miguel Zafra Anta medikuek XX. mende hasierako “Cantinas Escolares Municipales de San Sebastián. Su creación, desarrollo e influencia en la alimentación infantil” gai biziki interesgarria aztertutute. Autoreen arabera, kantina horiek filantropia-ekimenen emaitza izan ziren, eta ekimen horiek bat zetozen Espainian XX. mendeko lehen urteetan garatu zen erregenerazionismo-mugimendurekin; klase xumeenetako (langile eta sasoiari) seme-alaben nutrizioa, higiena eta eskola-osasuna bultzatu nahi zuten, haien irudiko haurtzaroak balio bat duelako eta horren arabera berronera daiteke Aberria, haurren hezkuntza eta zainketa on baten bidez.

Eta Donostia lehena izan zen Espainiako hiriburuetan zerbitzu hori izaten, “Sociedad Protectora de las Cantinas Escolares de San Sebastián”ek bultzatuta eta Udalaren babesaz (1910-1911), horretarako Madrilen 1901ean sortutako Eskola Kantinaren ereduari lotuz; Donostiakoari beste batzuk jarraitu zitoten Bilbon, Iruñean edo Gasteizen. Donostian zazpi Eskolako Kantina sortu zituzten. Amarako eskola-multzoa izan zen lehena, eta lorratzean joan zitzaizkion Ekialdeko Zabalgunea eta Antigua (1912), Viteri-Gros eta Peñafiorida-Garibay (1915), Atotxa eta Landa Eskolak (1925). 1925ean, egunero 6 urtez gorako 1.240 haur ingururi eman zieten arreta, 500 ongile baino gehiagoren babesaz. Hirian 1931ko Erregelamenduaren bidez araupezu zirenean sustraitu ziren.

Oharrak atalean, bestalde, arlo militarreko bi ekarpen garrantzitsu biltzen dira. Lehendabizikoa Ion Urrestarazu Paradarena da: “Relación verdadera del suceso de la toma de Hendaye, Urrugne, Ciboure, Saint Jean de Luz y el puerto y fuerte de Socoa en 1636”, Hego Euskal Herriko miliziek Lapurdiko herri horiek hartu zituztenekoa, buruzagi zituztela Valparaísoko markesa eta haren koronelak eta 10.000 gizon, beste 3.600 erretagoardian utziz. Lapurtarrei eragindako suntsipena eta kaltea erabatekoa ez baina handia izan zen, eta testuan eman ditu xehetasunak. Ondorioz, etsaiak Gipuzkoara sartu ziren, eta bi hilabeteko setioa jarri zitoten

Hondarribiari 1638ko udan. Auzotarrek defentsa eta erresistentzia irmoa eman zuten, gipuzkoar bertakoen laguntzaz. Ondorioz, Hondarribiko hiria izan zen «Txit Noble, Txit Leial, Oso Adoretsu eta Beti Oso Zintzo» titulu zehatz eta oimentsua jaso zuen Gipuzkoako lehen hiria.

Bigarren lanean, idazten duen honen eskutik, “Campañas militares del Ejército de Navarra y Guipúzcoa [Mendebaldeko Pirinioak ere deitua] en la Guerra de la Convención (1793-1795) aztertzen dira, eta horietan, «Partes de Guerra» zatia”. Espainiako Liburutegi Nazionalean gorde den eskuizkribu batean oinarritu da (egun, digitalizatu); bertan, modu anonimoan, askotariko agintari militarrek beren arduradunei eman zizkieten gerra-partea bildu dira, eta Nafarroan, Gipuzkoan zein Bizkaian Konbentzioaren Gerrak irauin zuen hiru urteko epean jazo ziren gertaerak zehaztu; Gerra horrek Espainia eta Frantzia errepublikarrak jarri zituen aurrez aurre. Nabarmentzekoa da parteen egileek (batez ere Ventura Carok, Josef Urrutiak, Colomerako kondeak eta Castelfrancoko printzeak, Armada horren zuzendaritzan txandakatu zirenak) nolako xehetasunez azaltzen duten Frantziako lurraldean espainiar tropak sartzea eta lehendabiziko gerra-urtean izan zituzten lorpenak; Konbentzioaren armada Aldudetik Baztan haranera eta, hortik Gipuzkoara sartzea; Armada etsaiak hortik egiten duen aurrerabidea eta Erresumako tropek, errejimenduek zein konpainiek, baita Gipuzkoako tertzio eta batailoiek ere, egiten duten lurraldearen defentsa; borrokak, gatazkatxoak, estrategiak, jazarpenak eta alde bateko zein besteko hilketak... Alegia, gerrako errealitate gordina...

M.^a Rosa Ayerbe Iribar

Azterlan Historikoen Buletinaren zuzendaria

DONOSTIAKO HISTORIARI. BURUZKO DR. CAMINO INSTITUTUA

KUTXA FUNDAZIOA